



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

1924/2006 (EE) ARAUDIA, EZAUGARRI NUTRIZIONALEI ETA OSASUNTSUEI BURUZKO JAKINARAZPENAK

Sarrera

Gaur egungo bizi-ohiturek aldaketak eragin dituzte bai elikadura-ohituretan, bai elikagaien teknologian. Elikagaien osagai ugariaren eta euren funtzioaren aurkikuntzak elikaduraren kontzeptu berria eragin du.

Industriak ondo baino hobeto ezagutu du egoera azken urteotan, eta ezaugarri bereziak dituzten elikagai ugari merkaturatu ditu. Gehienetan, gainera, zientzia-ikerketaren laguntza izan du horretarako.

Kontsumitzaileek, bestalde, elikatzeaz gain, euren osasuna hobetzen lagunduko dieten produktuak nahi dituzte, bai eta etiketak dioena egia izatea ere.

2007. urtearen aurretik, kontsumitzaileak produktu berri ugari aurkitu zituen aurrez aurre, eta produktu horien mezuak ez ziren batere argiak. Ondorioz, elikagai funtzionalen mezuak argitzen lagunduko zuen lege-markoa ezartzeko beharra antzeman zen.

2007. urtearen aurretik, hainbat dekretuk arautzen zituzten produktu horiek. Batetik, abuztuaren 2ko 1907/1996 Errege Dekretua dugu, osasun-helburua duten produktuen, jardueren edo zerbitzuen publizitateari eta sustapenari buruzkoa. Dekretu horren arabera, ezin dira erabili zenbait osasun jakinarazpen. Eta, bestetik, uztailaren 31ko 1334/1999 Errege Dekretua (2220/2004 Dekretuak aldarazia), elikagaien etiketatze, aurkezpen eta publizitateari buruzko arau orokorra ezartzen duena. Horien arabera, etiketak ezin dio elikagai bati egotzi giza gaixotasunak prebenitzeko edo sendatzeko ezaugarriarik. Gainera, ezin ditu ezaugarri horiek aipatu ere egin.

Hori konpondu zen 2006ko abenduaren 20ko 1924/2006 (EE) Araudia argitaratu zenean. Araudia Europako Parlamentukoa eta Kontseilukoa da,

eta elikagaien ezaugarri nutrizionalei eta osasungarriei buruzko jakinarazpenen gainekoa da.

1924/2006 (EE) Araudia

1924/2006 (EE) Araudia, 2006ko abenduaren 20koa, Europako Parlamentukoa eta Kontseilukoa, honako helburu hauekin osatu zuten:

- ✓ kontsumitzaileen babes-maila altua izatea eta horretarako etiketa egiazkoa izatea, kontsumitzaileek, dieta osasungarriaren barruan, elikagaiak aukera ditzaten euren beharren arabera.
- ✓ lege-araubide harmonizatua eskaintzea.
- ✓ nutrizio osaera onuragarria duten elikagaiak bultzatzea zientzia-ebidentzian oinarritutako alegazioen bidez. Horretarako, lehia baldintza berdinak sortu behar dira industriarentzat.

Hau da, Araudi berriak bete egin du elikatzeaz gain osasun-onura jakina duten elikagaien publizitate eta etiketa arloko lege-hutsunea. Ondorioz, bermatu egiten da kontsumitzaileen babes-maila altua dela. Gainera, araudiaren arabera, zientzia-ebaluazioa ezinbesteko baldintza da jakinarazpen bat egin ahal izateko.


Ezin da ziurtatu, iradoki edo jakinarazi askotariko dieta orekatuak nutriente kopuru egokia eskaini ezin duenik; eta ezin zaie, halaber, erreferentziarik egin gorputz funtzioen aldaketei, kontsumitzaileak izu ez daitezen.

Europako Araudiak ez du baimentzen alegazio terapeutikorik edo sendagarririk. Halaber, oso muga zorrotzak ezartzen dizkie, zuzenean edo zeharka, umeei zuzendutako alegazioei.


Argitaratu zutenetik, honako aldaketa hauek izan ditu 1924/2006 (EE) Arauak:

- 107/2008 (EE) Araudia- Batzordeari esleitutako egikaritze-eskumenak.
- 109/2008 (EE) Araudia- 14 eta 28.6 artikulua aldatzea.
- 353/2008 (EE) Araudia- Baimen-eskariak garatzeko arauak ezartzen ditu, 15. artikulua araberak.
- 1169/2009 (EE) Araudia- 353/2008 Araudia aldarazten du (Estatu Kideek eskariak onestean duten erantzukizuna eta eskariak baztertzeko prozedura garatzen ditu).
- 116/2010 (EE) Araudia.- Nutrizio jakinarazpen berriak.

1. EZAUGARRI NUTRIZIONALEI ETA OSASUNGARRIEI BURUZKO ALEGAZIOEN EUROPAKO ERREGULAZIOAREN EGITURA



2. ARAUDIAREN APLIKAZIO EREMUA



3. PRINTZIPIO OROKORRAK JAKINARAZPEN GUZTIETARAKO

- Ez dira izango ez faltsuak, ez anbiguoak, ez engainagarriak.
- Ez dute zalantzarik sorraraziko beste elikagai batzuen nutrizio segurtasunari eta/edo egokitasunari buruz.
- Ez dute bultzatuko elikagai baten gehiegizko kontsumoa.
- Ezingo dute ziurtatu, iradoki edo jakinarazi askotariko dieta orekatuak nutriente kopuru ezegokia eskaintzen duela.
- Ez diete erreferentziarik egingo gorputz funtzioen aldaketei, kontsumitzaileak izu ez daitezen.
- Ez dira izango inkoherenteak oro har onartuta dauden nutrizio eta osasun printzipioekin. Ez dute bultzatuko elikagai baten gehiegizko kontsumoa edo ez dituzte gezurtatuko dietaren praktika egokiak.

4. EZAUGARRI NUTRIZIONALEI ETA OSASUNTSUEI BURUZKO JAKINARAZPENAK ERABILI AHAL IZATEKO BALDINTZAK

Honako kasuetan baino ez da baimenduko jakinarazpena:

- Adierazitako substantziaren presentziak, gabeziak edo eduki murriztuak, zientzia aldetik, eragin onuragarria duela ziurtatzen bada.
- Jakinarazten den substantziaren kopurua nahikoa bada eragin onuragarria sorrarazteko.
- Adierazitako substantzia presente badago edo murriztu egin bada, eragin onuragarria justifikatzeko.
- Jakinarazten den substantziaren kopurua organismoak asimilatzen badu.
- Neurritz kontsumi daitekeen produktu kopuruak substantziaren kopuru nahikoa badu eragin onuragarria sortzeko.
- Kontsumitzailea jakinarazpena ulertzeko gai bada.
- Jakinarazpenak erreferentzia egiten badie kontsumitzeko prest dauden elikagaiei.

5. JAKINARAZPENAK ERABILTZEA: MURRIZKETAK ETA SALBUESPENAK

5

Araudiak debekatu egiten du jakinarazpenak egitea zenbait produktutan eta baldintzak ezartzen ditu beste produktu batzuetan:

- % 1,2 baino alkohol graduazioa handiagoa duten edarrietan EZIN da ezaugarri osasuntsuei buruzko jakinarazpenik egin. Produktu horietan honako jakinarazpen hauek baino EZIN dira egin: alkohol kopuru txikia duela edo alkohol edo energia kopuru murriztua duela.
- EZIN da pisua galtzeko erritmoari edo neurriari buruzko aipamenik egin.
- EZIN da adierazi jakinarazten den elikagaia kontsumitu ezean osasunean eragina izan dezakeela.
- EZIN da banakako sendagileen edo osasun profesionalen gomendioei erreferentzia egiten dien jakinarazpenik egin.
- Nutrizio profil jakina betetzen duten elikagaien edo elikagai kategorien ezaugarri osasuntsuei buruzko jakinarazpenak baino EZIN

izango dira egin. Profil hori nutrizio eta osasun ezagutza zientifikoekin bat ezarriko da.

6. NUTRIZIO PROFILAK

Nutrizio profila elikagaika edo elikagai kategoriaka ezarriko da, EFSAren zientzia-aholkularitza jaso ostean eta honako hauek aintzat hartuta:

- Gehiegi kontsumituz gero, osasunean eragin kaltegarria duten nutrienteen edo beste substantzia batzuen kopurua: koipeak, gantz-azido saturatuak, trans gantz-azidoak, azukreak eta gatza edo sodioa.
- Elikagaien edo elikagai kategorien funtzioa eta garrantzia herritarren dietan, edo herritarren talde berezietan, umeetan kasu.
- Nutrizio osaera osoa eta osasunerako onuragarriak diren nutrienteen presentzia.

Profil horiek betetzean salbuespenak aintzat hartuko dira.

7. KATEGORIAK/JAKINARAZPEN MOTAK

Nutrizio jakinarazpenak: Kopuru murriztuan edo gehituan dituen energia eta nutrienteen ekarpena dela eta, elikagai batek nutrizio propietate osasungarriak dituela baieztatzen, iradokitzen edo adierazten duen edozein jakinarazpen.

Ezaugarri osasungarrien jakinarazpenak: Elikagai kategoriaren, elikagaiaren edo osagai baten eta osasunaren artean lotura dagoela baieztatzen, iradokitzen edo adierazten duen edozein jakinarazpen.

Elikagai batek gaixotzeko arriskua murriztu egiten duela adierazten duten jakinarazpenak eta umeen garapenari eta osasunari buruzkoak: Elikagai kategoria, elikagai edo osagai bat kontsumitzeak gaixotasunaren arrisku-faktorea murriztu egiten duela baieztatzen, iradokitzen edo adierazten duen edozein jakinarazpen.

Nutrizio jakinarazpenak

"Elikagai batek nutrizio propietate osasungarriak dituela baieztatzen, iradokitzen edo adierazten duen edozein jakinarazpen", honako arrazoi hauek tarteko:

a) energia-balioa (kalorien balioa)

- Zein energia-balio duen.
- Kopuru murriztuan edo gehituan zein energia-balio duen.
- Zein energia-balio ez duen, edo/eta

b) nutrienteak edo bestelako substantzia batzuk

- Zein nutriente edo bestelako zein substantzia dituen.
- Kopuru murriztuan edo gehituan zein nutriente edo bestelako zein substantzia dituen.
- Zein nutriente edo bestelako zein substantzia ez dituen.

Nutrizio jakinarazpenak bakarrik baimenduko dira, baldin eta Araudiaren eranskinean eta ondorengo eguneratze prozesu guztietan zerrendatuta agertzen badira.

Gaur egun baimenduta dauden nutrizio jakinarazpenak honako hauek dira:

http://www.elika.net/datos/articulos/Archivo_EU637/nutrizio%20etiketa%20liburuxka_eus.pdf

Ezaugarri osasuntsuen gaineko jakinarazpenak

"Elikagai kategoriaren, elikagaiaren edo osagai baten eta osasunaren artean lotura dagoela baieztatzen, iradokitzen edo adierazten duen edozein jakinarazpen"

1. EZAUGARRI OSASUNTSUEN GAINEKO JAKINARAZPENAK HAINBAT ARTIKULUTAN OINARRITUTA

1.1. 13.1 artikuluan oinarritutako jakinarazpenak

Honako hauei erreferentzia egiten dieten edo deskribatzen dituzten jakinarazpenak dira:

- Nutriente batek edo beste substantzia batek izan ahal duen eragina hazteko prozesuan, garapenean eta gorputzaren funtzioetan, edo
- funtzio psikologikoetan eta jokaeraren gaineko funtzioetan, edo
- 96/8/CE Zuzentarauari kalterik egin gabe, argaltzeko gaitasunean, pisua kontrolatzean, gose-sentsazioa murriztean, ase-sentsazioa areagotzean edo dietaren energia-balioa murriztean;

Eskaeren oinarri zientifikoa balioztatze aldera, ezaugarri osasuntsuei buruzko jakinarazpenen zerrendaren proiektuaren berri eman zion Batzordeak Elikagaien Seguratasuneko Europako Agintaritzari (EFSA).

EFSAren iritziak oinarri moduan balioko die Europako Batzordeari eta Estatu Kideei, Araudiaren 13.1 artikuluan oinarrituta, ezaugarri osasuntsuei buruzko jakinarazpenen Europa mailako zerrenda onar dezaten.

1.2. 13.5 artikuluan oinarritutako jakinarazpenak

Honen bidez, Europa mailako zerrendan ezaugarri osasuntsuei buruzko jakinarazpen gehiago sar daitezela eskatu ahal izango dute, 13.1 artikuluan oinarrituta. Jakinarazpen horiek duela gutxi jasotako zientzia-frogetan egon beharko dira oinarrituta edo/eta jabetza industrialaren eskubideak babesteko eskaera izan beharko dute erantsita.

Gauzak horrela, produktu dietetiko, nutrizio produktu eta alergien gaineko EFSAren zientzia panelak balioztatuko du nolako zientzia oinarria duten ezaugarri osasuntsuen gaineko adierazpenekin batera aurkezten diren eskaerek, eta zientzia iritzi bat argitaratuko du balioztatzearen ondorioak deskribatzeko.

Iritzi horiek oinarritzat hartuko dira ezaugarri osasuntsuen gaineko adierazpenak baimendu edo bazter uzteko.

1.3. 14 artikuluan oinarritutako jakinarazpenak

Araudiaren 15, 16, 17 eta 19 artikuluetan zehaztutakoaren arabera baimenduko dira. Eta, era berean, honako sailkapen hau egin ahal izango da:

a) Gaixotasunaren arrisku-faktorea murriztearekin lotutakoak (14.a artikulua): elikagai kategoria, elikagai edo osagai bat kontsumitzeak gaixotasunaren arrisku-faktorea murriztu egiten duela baieztatzen, iradokitzen edo adierazten duen ezaugarri osasuntsuen gaineko edozein jakinarazpen da.

b) Umeen garapenarekin eta osasunarekin lotutakoak (14.b artikulua)

Horrelako kasuetan ere, produktu dietetiko, nutrizio produktu eta alergien gaineko EFSAren zientzia panelak balioztatu beharko du nolako zientzia oinarria aurkezten diren eskaerekin batera, eta zientzia iritzi bat argitaratuko du. Zientzia iritzi horiek oinarritzat hartuko dira aipatutako eskaerak baimendu edo bazter uzteko.

2. ESKAERAK AURKEZTEA 13.5 ETA 14 ARTIKULUETAN OINARRITUTA

Eskaera horiek duela gutxi jasotako zientzia-frogetan egongo dira oinarrituta edo/eta jabetza industrialaren eskubideak babesteko eskaera izan beharko dute erantsita (13.5 artikulua). Halaber, gaixotasunaren arrisku-faktorea murriztearekin lotutako jakinarazpenak izango dira, bai eta umeen osasunarekin edo garapenarekin lotutakoak ere (14. artikulua).

Bermatu egin beharko da, orobat, eskaeran proposatutako ezaugarri osasuntsuen gaineko adierazpenaren testua 13.5 artikuluaaren esparruan egongo dela sailkatuta modu egokian, edo bestela Araudiaren 14 artikuluan.

Eskaera guztiak prestatu eta aurkeztu beharko dira honako gida honen arabera: ezaugarri osasuntsuen gaineko adierazpenen eskaerak prestatu eta aurkezteko gida zientifikoa eta teknikoa, Elikagaien Segurtasuneko Europako Agintaritzak (EFSA) sortutakoa.

<http://www.efsa.europa.eu/en/efsajournal/pub/530.htm>

Ahal izanez gero, lehenago aipatutako gidak eskatzen duen txostena ingelesez idatzi beharko da. Horrela ez balitz, balioztatze prozesua atzeratu egin ahal izango litzateke, EFSAk txostena itzuli bitartean. Txostenean jaso beharreko bestelako betekizun batzuk honako hauek dira:

- Aitortutako eragina sorrarazten duen elikagai edo substantzia bakarra modu argian identifikatzea, elikagai produktu batzuen osaketaren barruan dagoen ala ez aintzat hartu gabe. Izan ere, produktu horiek osasunaren gaineko jakinarazpena eraman beharko lukete.
- Osasunarekin lotutako erlazio bakar bat definitzea.

- Ezaugarri osasuntsuen gaineko adierazpen bakarra sartzea

3. BAIMENDUTAKO JAKINARAZPENEN ZERRENDAK EUROPA MAILAN

3.1. 13.1 artikuluan oinarritutako jakinarazpenen zerrenda Europa mailan

Araudiaren 13.1 artikuluan oinarritutako jakinarazpenen zerrenda proiektua kontsultatzeko eta horrekin batera erantsitako zientzia erreferentziak, irizmenak edo EFSAk argitaratutako bestelako informazioa ere kontsultatzeko EFSAren eta AESANen web orriak bisitatu ahal dira:

<http://www.efsa.europa.eu/en/ndaclaims/ndaclaims13.htm>

http://www.aesan.msps.es/AESAN/web/cadena_alimentaria/detalle/serie_opiniones_efsa.shtml

3.2. 13.5 artikuluan oinarritutako jakinarazpenak

Gaur egun, EFSAk hainbat zientzia iritzi argitaratu ditu, eta jarraian agertzen den estekan daude ikusgai, azkenik argitaratutako iritzietatik hasita:

http://www.aesan.msps.es/AESAN/web/cadena_alimentaria/detalle/opiniones_efsa_art13.5.shtml

Halaber, 13.5 artikuluan oinarritutako ezaugarri osasuntsuei buruzko jakinarazpenak baimendu edo bazter uzteko araudiak jarraian agertzen den estekan daude kontsultagarri, argitaratutako dataren arabera sailkatuta:

http://www.aesan.msps.es/AESAN/web/cadena_alimentaria/detalle/reglamentos_art13.5.shtml

3.3. 14 artikuluan oinarritutako jakinarazpenak

Gaur egun, EFSAk honako zientzia iritziak argitaratu ditu:

Gaixotasunaren arrisku-faktorea murriztearekin lotutako iritziak (14.1. a artikulua)

http://www.aesan.msps.es/AESAN/web/cadena_alimentaria/detalle/opiniones_efsa_art14a.shtml

Umeen garapenarekin eta osasunarekin lotutako iritziak (14. b artikulua)

http://www.aesan.msps.es/AESAN/web/cadena_alimentaria/detalle/opiniones_efsart14b.shtml

Halaber, 14 artikuluan oinarritutako ezaugarri osasuntsuei buruzko jakinarazpenak baimendu edo bazter uzteko araudiak honako hauek dira:

http://www.aesan.msps.es/AESAN/web/cadena_alimentaria/detalle/reglamentos_art14.shtml

Ondorioak

- ✓ 1924/2006 (EE) Araudia argitaratzea erabilgarria izan da. Izan ere, lege marko bat sortu da, eta hori argitaratu arte oinarri zientifikorik gabe argitaratzen ziren jakinarazpenak; horri esker, elikagaien ezaugarri nutrizionalei eta osasungarriei buruzko jakinarazpen guztiek badute babesaren legearen aldetik.
- ✓ EFSA zorrotasun handiz ari da argitaratzen zientzia iritziak, eta horrek eragina du baimendutako jakinarazpenen zerrendak argitaratzeko epeak betetzeko orduan.
- ✓ Nutrizio profilen gaia gai korapilatsua da. Araudian aurreikusi zen 2009ko urtarrilaren 19an argitaratuko zela. Gaur egun, prozesua ia geldirik dago, eztabaida politikoaren baitan. Europako Parlamentuan eztabaidatu zen nutrizio profilen gaiekin jarraitu ala ez; eta, azkenean, boto bati esker aurrera jarraitzea erabaki zen.

Bibliografia

1. Tailerra: nutrizio ezaugarrien eta ezaugarri osasuntsuen gaineko adierazpenak etiketan jasotzea. ELIKAK eta AZTIk antolatua, 2011ko urtarrilaren 28an.
2. Foiletoa: "Nutrizio ezaugarrien gaineko etiketa" (ELIKA).
3. Elikagaietako Kalitateari buruzko IV. Jardunaldiak: "Elikagaien publizitatea eta kontsumitzaileari eman beharreko informazioa". Antolakuntza eta Ikuskapenerako Madrileko Zuzendaritza Orokorra. 2010eko ekainaren 23an.
4. 1924/2006 (EE) Araudia, elikagaien ezaugarri nutrizionalei eta osasungarriei buruzko jakinarazpenen gaineko aplikazioaren Jardunaldia (AESAN)
5. Derecho Alimentario aldizkaria, 65. zenbakia, 2011ko martxoko alea.
6. Elikagaien Segurtasuneko eta Nutrizioko Espainiako Agentziaren (AESAN) web orria.
7. Elikagaien Segurtasuneko Europako Agintaritzaren (EFSA) web orria.
8. Araudia interpretatzeko gidaliburua (SESAL).
9. 1924/2006 (EE) Araudia, elikagaien ezaugarri nutrizionalei eta osasungarriei buruzko jakinarazpenen gainekoa.